

1.- *"...Bizkaira esatera ninjoan, baño damutu egin zait; bada Bilbotik itxasoruntz goazela ezker aldetik dauden erriak ezitrudite Bizkaikoak. Toki haietan Bizkai barrutik agiri dan zeru garbirik ezta ikusten; Gernika, Durango ta Markiñako ibarretan daukagun pake ta txukuntasunik ezta billatzen; **etxeko izkuntza maitearen durundi (oihartzun) gozorik ezta iñon sumatzen.**"*

AGIRRE, Txomin. "Garoa" (XIX. mendearen azken aldia)

(Ustez ezina zena, bultza eta bultza egin da dena.)

2.- *"...Abantoko mendiak, Gallartako lur eta gizon gorriak."*

AGIRRE, Txomin. "Garoa" (XIX. mendearen azken aldia)

3.- BIZENTA MOGEL ETA ELGEZABAL. EUSKARAZ IDATZI ZUEN LEHEN EMAKUMEA.

Hiru dira euskal literaturaren alorrean izen handia lortu duten Mogeldarrak: Joan Antonio (1745-1804), Joan Jose (1781-1849) eta Bizenta Antonia (1782-1854).

Lehenbizikoak, besteak beste, itzal handia eman zion liburu bat idatzi zuen: Peru Abarca. Beste biak neba-arrebak dira, eta Joan Antonio osaba zuten.

Bizenta Antonia Mogel Azkoitian jaio zen mundura (1782-7-6an), beraren aita han baitzegoen mediku, baina, urtebete egin baino lehen, aita hil eta Markinara aldatu ziren neba-arreba biak.

Bizenta, urteen joan-etorrian, Eleuterio Basozabalekin ezkondu zen eta, azkenean azkena, alargundurik Abanton hil zen 1854-6-29an.

Bizenta Antonia izan genuen Euskal literatura idatziaren alorra gorritu zuen lehen emakumea.

1804ean argitara zuen Bizenta Mogelek bere lehen liburua, osaba hil zen urte berean hain zuzen, eta kontuan hartzekoa da hogeitabi urte besterik ez zituela. Liburuaren izenburua: **Ipui onac.**

